

BILBOKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, *EUSKARALDIARI BURUZ*

Bilboko alkateak adierazpena irakurri du.

"Azken neurketek baieztatu dutenez, euskararen ulermena eta ezagutza Euskal Herri osoan zabaltzen ari dira. Euskaraz berba egiteko gai den gero eta jende gehiago dago, eta euskara ulertzen dutenak ere gero eta gehiago dira. Bi datu horiek aditzera ematen digutenez, euskarazko harremanak areagotzeko baldintza onak daude.

Euskararen erabilera sustatu eta praktika linguistiko berriak bultzatzen dituzten testuinguruak sortzeko beharra dagoela ikusten dugu. Helburu horiek lortzeko, hiltune prestakuntza- eta ahalduntze-tresnak eskaintzea garrantzitsua izango da aurrerantzean.

Helburua da herritar euskaltzaleak aktibatzearen bidez euskararen erabilpena sustatzea. Eta horren harira, euskararen inguruan lanean ari diren zenbait sustatzailek *Euskaraldia* sortu dute.

Euskaraldia ez da kanpaina bat, ezta euskararen aldeko jai bat ere. *Euskaraldia* ariketa sozial bat da.

Batetik, euskal hitzunen hizkuntza-harremanetan eragitea eta beren harreman-sareetan euskara gehiago erabiltzea izango da 2018ko azaroa eta abendua bitartean egingo den "*11 egun euskaraz*" ekimenaren helburua. Bestetik, hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta erakundeen artean partekatua denez, 2019an, mota guztietako erakundeek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea izango du xede *Euskaraldiak*.

Aktibatzeak martxan jartzea esan nahi du. Hizkuntzaren erabilerari lotutako kontzeptua da, euskaraz hitz egiten dakitenek edota euskara ulertzeko gaitasuna daukatenek euskara erabil dezaten lortu nahi da.

Hamaika egun horietan, 16 urtetik gorako herritarrak *Ahobizi* eta *Belarriprest* bihurtzea da helburua. *Ahobizi* dira euskara ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egingo dieten lagunak (baita ezezagunei ere, gutxienez lehen hitza, euskaraz egingo dietenak ere). *Belarriprest*, berriz, euskara ulertzen duten pertsonak dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatuko dietenak.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta tokiko ingurura zein errealitate soziolinguistikora moldatzeko modukoak izango dira.

Antolaketan, beraz, hainbat auzo, herri zein eskualdetako euskaltzale-taldeak arituko dira, eta baita hainbat elkarrekin, enpresa eta erakundetakoak ere. Horietako asko jada lanean hasi dira aurten egingo den gizarte-ariketa prestatzeko.

Hori guztia dela eta, Bilboko Udalak honako adierazpen instituzional hau adostu du:

- 1) Bilboko Udalak berea egiten du *Euskaraldiaren* helburua, hau da, euskarazko hizkuntza-praktika eta -harremanak bultzatzea.
- 2) Bilboko Udalak bat egiten du *Euskaraldiarekin*, bat egite hori adierazpen instituzional honen bitartez gauzatuz.
- 3) Bilboko Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu, euren euskara-gaitasunen arabera, *Euskaraldian* parte hartzera, ahalduntze-tresna bat eskuratuz, euskarazko harremanetarako espazioak sortuz eta harreman horiek praktikatzeko bultzatuz".